

# KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA / 2007ko abenduaren 21a / 232. zenbakia / 18. urtea

- **HERRIKO KONTUAK Gabonetako egitaraua** 05
- **KIROLA Gara Falconet nagusi Pirinioetan** 08
- **AIAKO BERRI Pedro Mari Marin** 10

- **IRITZIA Jon Redondo** 20
- **MOILA BAZTERRETIK Jokin Salsamendi** 21
- **HERRITARRA Tere Jesus Karrera** 25



**Ametsik** ederrena  
martxan da

Txurrumuski taldeak hartu du bere gain Ametsa gaztelekua kudeatzeko ardura. Ilusio eta gogo handiz heldu diote erronkari.

**ertza**

Abenduaren 15ean, 22an eta 29an arratsaldez irekita. Errege egun bezperan, egun osoan irekita.

Gabonetarako perfume eta oparirik goxoak ditugu.

*Urte berri on!*

**Nahikari**

HARURDENDA  
TIENDAS DEL SURDURDUE TIENDA

Ameytza, 100000  
20081-ORIO  
TEL: 943 83 12 81  
www.nahikari.com

**GOZATEGI**  
FRUITA-DENDA

Eusko Gudariak 17  
943 83 12 81

ferretería

**URANGA**

Burdindegia

Tel./Fax: 943 831 236  
Eusko Gudariak, 5 / 20810 ORIO  
e-mail: fer.urangaa@euskalnet.net

OPARIAK

*Bakea eta zoria  
opari di zuegi*

**ARATA modaro**

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

**ORIO'S Shop**  
JANTZIDENDA

Eusko Gudariak, 17  
Tel. 943 83 12 44  
ORIO

*Gabonak ondo pasa!*

*Gabonetako opari goxoak*

**ITSAS MENDI**

*guztiziala*

Kala, 7/9 • Tel. 943 140 993 • GETARIA

*Kirolatuta - Amara*

**argine**

www.izabal.com/argine  
Tel: 943 73 48 89

*Egabonak zintzuzkoak!*

10.000ko deskontua familia oparirik gabonak!

**la Caixa**

*Zarionak eta urte berri on guztia!*  
*Ondo pasa gabonak*

Eusko Gudariak 22, Orio. Tel: 943 30 63 20 e-mail: 7957@lacaixa.es

# KARKARA

ORIOKO ETA AIAKO ALDIZKARIA

Kultur Etxea  
20810 ORIO  
943 83 15 27

www.karkara.com  
karkara@karkara.com

**Editorea**

KARKARA taldea kultur elkarte

**Zuzendaria**

Ana G. de Txabbarri

**Erredakzio burua**

Patxi Uranga

**Erredakzio taldea**Lore Berasaluze, Pat Cowie,  
Miren Etxebarria, Ana Iturain,  
Eneritz Odriozola eta  
Jabier Zabaleta**Aiako erredakzioa**

Eli Lasa eta Pat Cowie

**Publizitatea**

Pat Cowie

**Publizitatearen diseinua**

Patxi Uranga

**Testuen zuzenketa**Miren Etxebarria eta  
Jabier Zabaleta**Ale honetako kolaboratzaileak**Iñaki Iturain, Joxe Mari Lertxundi,  
Rosa Lertxundi eta Jon Redondo**Diseinua**

KARKARA taldea eta Goio Arana

**Banatzzaileak**Josu Lizarralde eta  
Itziar Aiestaran (Orio)  
Iruñe Aldai (Aia)**Inprimategia**

Gertu Koop. E. (Oñati)

**Lege gordailua** SS-346/90**ISSN** 1132-1105**Tirada** 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen edota  
iritzien erantzukizunik.

KARKARAN argitaratutakoa berremen  
daiteke, osorik edo zatika, baldin eta  
iturria aipatzen bada.

# Jesusito?... Anbotoko dama!

ZATAIN KLAUS

**1**  
Piztu dira bonbilak  
has dadila festa,  
xoxa denak xahutzeko  
zaitezela presta,  
urtarrila bitarte  
ez gaitzen kezka  
hiru asteko jaia  
bestերիկան ezta.

**2**  
Egun hauetan bada  
lehia nabarmena  
zein den eskuzabalen  
ta zein jatorrena,  
behartsuekin gaude  
teorian dena  
gure elkartasuna da  
hutsaren hurrena.

**3**  
Kristautasuna ez al da  
sekulako zama  
berezkoa ez dugun  
kondaira andana  
nahiz euskaldunok izan  
kristau onen fama  
batzuk ez degu aztu  
Anbotoko dama.

**PUBLIZITATE PREZIOAK****IRAGARKIA ALERO JARRITA**

Modulu bat .....	12,00 €
Bi modulu .....	24,00 €
Hiru modulu .....	36,00 €
Lau modulu .....	48,00 €
Sei modulu .....	72,00 €
Zortzi modulu .....	96,00 €
Orrialde erdia .....	120,00 €
Orrialde osoa .....	204,00 €

**IRAGARKIA BEHIN JARRITA**

Modulu bat .....	16,00 €
Bi modulu .....	31,00 €
Hiru modulu .....	47,00 €
Lau modulu .....	64,00 €
Sei modulu .....	95,00 €
Zortzi modulu .....	127,00 €
Orrialde erdia .....	174,00 €
Orrialde osoa .....	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko Pat Cowierekin hitz egin (695 78 07 20) edo karkara@karkara.com  
Prezio hauei BEZa gehituko zaie

**LAGUNTZAILEAK**

Euzko Jaurlaritzaren Logoak

Kultura Sailak  
diruz lagundutako  
hedabidea

## Kirol zerbitzu zabalagoa, mesedez

Sanikolasak pasa dira eta etorriko dira, berriz ere, sanpedroak. Guztioi gustatzen zaigu festa giroa, ohetik berandu jaikitzeak aitzakia hutsagatik bada ere. Baina lanegunak lanegun dira. Izan ere, guk hartu genuen sorpresa asteazken arratsaldean Karela kiroldegia itxita zegoela esan zigutenean.

Aurretik ere, sanpedroetan, hala gertatu zen: festa bezperan goizez bakarrik irakizituzten ateak, eta guk ikasten ez. Udal kiroldegia da, herritarrona, ustez, eta zerbitzu hobea, zabalagoa merezi dugula iruditzen zaigu.

Beraz, eskutiz honekin kiroldegiaren egutegia eta, bide batez, ordutegia, begiratu eta berrantolatzeke eskatu nahi genioke dagokionari.

HERRITARRAK

## Arkupeko sariak

Bezeroen fidelitasuna eskertzeko, Gabonetako opariekin sariak nahi ditugu. Abenduaren 10etik erosketak egiterakoan tiketa osatzen dugu bezeroaren izena eta telefo-

no zenbakiarekin. Tiketak Arkupeko dendetan dauden buzoietan sartuko dira. Denak bilduko ditugu urtarrilaren 5ean eta Erregeen kabalgataren ondoren egingo dugu zozketa. Sariak hauek dira:

1. Bi pertsonarentzako Tunezera bidaiak astebeterako, dena barne erregimenean, 4 izarreretako hotelean.
2. Asteburu bat Kantabriako bainuetxe batean bi lagunentzako.
3. 100 euroko erosketak txartelak Arkupeko dendetan gatzatzeko.

Gainera, abenduaren 24an Olentzero etorriko da ibaitik Arkupeko gonbidatuta. 16:30etik aurrera herriko plazan egongo da eta bertan txokolatada izango da. Ondoren 19:00etatik aurrera, kaleak alaituko ditu Egunsenti otxoteak.

ARKUPE ELKARTEA

## Sanikolasetako balorazioa

Jai eginaz eta jaietan parte hartuz gozaten dugunez, eta sanikolasetako erantzun bikaina ikusita, lanean jarraitzeke ilusioa areagotu zaigu. Herriko kaleak urte osoan alaitu nahi ditugu ekitaldiak nahiz festak antolatuz. Horretarako, ostegunero biltzen gara,

19:30ean, Gazte Asanbladaren lokalean, gazte mugimendua indartzeko eta herriaren arazoak aurre nola egin eztabaizatzeko. Ateak zabalik dituzu.

Festetan lan asko egin dugu, aurretik adina, eta balorazioa positiboa da. Salaketa bakarra: beste herrietan pankartek herriaren aniztasuna erakusten duten bitartean, Orion, alkateak informazio eta protesta eskubidea ukatzen digu. Bere esplikazioa: zerrikeria dira. Baina, jakina, banderen bedeinkaziorako jarritako pankarta eguna pasa eta ia beste bi astez zintzililik egotea... hori ez da zerrikeria, eta ez du kentzeko agintzen. Egindako lana, besterik gabe, zapuzteak min ematen du eta, ahal den neurrian, ez dugu onartuko.

Eta bestelako kexekin jarraituz, zera esan:

1. Informazio objektiboa nahi dugula herrian, ez alderdi baten aurpegia garbitzeko besterik balio ez duen panfleto bat. Hortaz, ez dugu Plaza aldizkaria nahi.

2. EAJren megaproiektu txikitzailearen (AHT) aurkako mobilizazioetan nahiz beren eskubideen alde borrokan auzitara edota zulara bidaltzen ari zaretenon aldeko ekintzetan parte hartzeko eskatzen dizuegula herritarrei.

ORIOKO GAZTE ASANBLADA

## Orioko Pilota Elkarteari

Eskerrak eman nahi dizkizuet antolatuz enidaten ustekabe omenaldiagatik, baita bertan parte hartu zenuten guztioi: dantzari, txistulari, bertsolari, lagun, koadrila, pilotari, elkarte eta zaleei.

Pilota zaleen txalo zaparrada beroa entzun nuen une batean, eta irailaren 15a etorri zitzaidan gogora, San Franziskon lortu nituen garaipenaz, irabazitako txapelaz, Euskal Herria ordezkatzeko izan nuen aukeraz eta barruan neraman pozaz. Abenduaren 9an, Orioko frontoian, jendearen harrerak berriro hunkitu ninduen, nire kirol lorpenek eta ibilbideak begirunea jaso baitzuten. Beraz, lerro hauetatik, zorionak eman nahi dizkiet pilota elkarteari eta pilotaren alde lanean aritzen zareten herritarroi. Horrela jarrai dezazuela luzaroan, horixe opa dizuet.

TIBUR ETXEBERRIA

## Betaurrekoak

Graduatutako betaurrekoak galdu nituen sanikolasetako ostiralean, kolore beltzekoak. Aurkitu badituzu deitu, mesedez, 650 94 71 42ra.

KORO

**BEREZI**  
moda eta osagarriak

edozein tokian BEREZI sentitzeko arropa

Arrantza kalea, 3  
Tel: 943 89 05 29

- Lois - Caroché - Guess? - Pepe Arellano - Jackpot - Diesel - Cotton Field -

Carmen eta Txomin  
ARRANDEGIAR

943 83 05 37 / 943 83 27 07

**bodegas ERRASTI, S. L.**

Eskualderako banatzailea  
Zudugarai, Getartako txakolina  
Ilagares, ardo gorria nafarra  
Bodegas Gailur: Señorío de Laurgain  
Gailur eta Arandegi,  
Arabar Errisako ardoak.

Eusko Gudar, 46. ORIO • 943 83 03 88 / 83 59 52 • E-posta: bodegeserrasti@euzkumet.net

**BORDATXO**

Platso goro-gorria

Tel: 943 13 30 14

**uranga**  
autozerbitzua

**Aliprox**

Eusko Gudarai kalea 13-15  
ORIO  
943 83 38 75

ERREGIEN KABALGATARAKO IZEN EMATEA ABENDUAREN 21EAN IZANGO DA

# Zakua ekitaldiz ondo beteta dotozkigu aurtengo Gabonak

Ezohiko kultur egitaraua prestatu da datozen bi asteetarako. Gabonak ospatu ala ez, izango da zer egin edo non gozatu.

Abenduaren 22an trizikloak, kotxe pedaleak eta patineteak izango dituzte haurrek jolasteko. 17:00etatik 19:00etara izango da, Ikastola aurrean edo pergolan, eguraldiaren arabera; 23an, Salatxo abesbatzak kontzertua eskainiko du elizan, meza nagusia eta gero; 24an, goizean hasita, ikastetxeetako haurrak kantari arituko dira herrian barrena; 26an, globo mezulariak eta txokolatada izango dira plazan, 17:00etatik 19:00etara; 27an, joko tailerra egingo da plazan, 17:00etatik 19:00etara; 28an, 0-3 urte arteko haurrentzako txiki-txokoa prestatuko dute kultur etxean, 10:30etik 12:30era; 28an, haurrentzako bideo emanaldia eskainiko da kultur etxean, 17:00etan. 22:00etan, berriz, Benito Lertxundik kantuan jarriko du herria, kiroldegian; 29an, Herribil 3 dantza ikuskizuna eskainiko du Harribilek Karelana, 22:00etan; urtarilaren 2an eta 3an, haurparkea zabalduko dute Karelana, 11:00etatik 13:30etara eta 16:00etatik 20:00etara; 4an, aintzinako jolasak ezagutzeko aukera izango da plazan, 17:00etatik 19:00etara; 5ean, Erregeen kabalgata iritsiko da



Ohi bezala, erregeen kabalgata jendetza bilduko du aurtengoan ere.

KARKARA

zubian barrena, Talai Mendik antolatuta.

## ARKUPE ETA OLENTZERO

Herriko merkatarien elkarteak, Arkupek ere ongi etorria egingo dio Olentzerori. Hilaren 24an, 16:30ean, iritsiko omen da, itsasotik, moilara eta txokolatada batekin hartuko dute. Ondoren, 19:00etatik aurrera, *Egunsenti* otxotea kalez kale arituko da kantari. Urte zahar egunari dagokionez, 09:00 txistulariak arituko dira kaleak girotzen. 10:00etan ttunturrek hartu-

ko dute lekukoa. Arratsaldean, 17:00etan Txurmuskik jolasak antolatuko ditu haurrentzat. Bukatzeko, 18:00etan Batukada doinuek kaleak alaituko dituzte. Azken hau, ordea, Karkara inprentara bidaltzerako orduan zehazteke zegoen. Bi egunotan, kalera baserritarrez eta arrantzalez jantzita ateratzeko deia egin diete Arkupekoek herritarrei. Bestalde, elkarteak osatzen duten dendetan erosketarako bakoitzeko txartelak oparitzen ari dira urtarilaren 5ean egingo duten zozketan

parte hartzeko.

## ERREGIEN KABALGATA

Talai Mendi elkarteak lagunek jakinarazi dutenez, Erregeen kabalgatarako izen ematea abenduaren 21ean izango da, 19:00etan Ikastolako pergolan. Bertan, sei urtetik gorako izenak hartuko zaizkie. Lehen entsegua, berriz, abenduaren 22an izango da, 12:00etan pergolan. Antolaketa parte hartu nahi duten guraso eta herritar guztiei ere bertara agertzeko deia egin diete mendi elkarteek.

**ALTXERRI**  
Karta eraberrina  
Asteburuan, eguerdi eta gurutean,  
marra berriak  
94383 0762

**Alustiza Autobusak**  
Alustiza Bidaiak S.L.  
Autobus litera eta  
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.  
Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.  
Tel: 943 13 28 93 / 83 08 80. Mungikorra: 656 78 30 01 - 656 78 29 99

HERRIKO ARRAUNLARIEK ETA IKASTOLAKO HAURREK ERE HARTUKO DUTE PARTE

# Benito Lertxundi Karelan izango da hilaren 28an

**Ikusmin handia sortu du Benito Lertxundik eta bere taldekideek hilaren 28an eskainiko duten emanaldiak eta Karelako harmailak txiki gera daitezke egun horretan.**

Abenduaren 2an egiteko azen, hasiera batean kontzertua. Horixe adierazi digu Benitok: *Badut arraun munduari buruzko abesti bat egina, inoiz argitaratu gabea eta, arraunlari batzuekin hizketan ari nintzela, esan zidaten polita litzatekeela elkarrekin abestea. Baina musikarietako batzuk ezinezkoa zutenez, bertan behera geratu zen ideia. Pena handia hartu nuen.*

Gerora, ordea, Oihana Alkorta zenari omenaldia egiteko ideia bazela eta, berriro hasi ziren kontu harekin. *Arraunlariak prest zirenez, bi gaiak lotuta, Oihana omentzea eta arraunlarietako batera kantatu hori aurkeztea, aurrera egitea erabaki genuen, gaineratu du abeslariak.*

Baina ez dira arraunlariak izango gaueko gonbidatu bakarrak. Izan ere, ikastolako zenbait haur aldamenen izango dituzte abesti horretan, kantari. Hortaz, emanaldia, azken aldian eskaintzen dituen tankerakoa izango den arren, berezia ere izango da. Sarreran, gainera, eskuorri bana emango zaio jendeari abestia kantatzeko modua izan dezan, gaztelarazko itzulpena eta guzti. Oihanaren



Benito Orion, 2004an. Alvaro Feitoren liburutik atera dugu argazkia. ANDER GILLENEA

## Eskaintzen dituenen tankerako emanaldia prestatu arren, berezia ere izango da

abesti baten letra ere izango du orriak, Benitok haren omenez abestuko duenarena, hainbat zuzen.

### BENITOREN BIOGRAFIA

Bestalde, Benitoren biografia kontatuz Alvaro Feitok iaz argitara emandako liburua erosi ahal izango da Karelan. Oriotarraren ibilbide artistikoa du ardatz lanak eta bi bertsio ditu: erdarazkoa bata, eta euskarazkoa bestea, Mikel Markezek egina. 472 orrialdeetan, Benitoren ibilbidearen analisi zehatza aurkituko du irakurleak, 60ko hamarkadan hasi eta gaur arte, hainbat argazki, dokumentu, partitura, testigantza eta abar.

### LABUR

## OSPAKIZUNA Festa indigena

Aurten ere *Runa Kausay* (beren bizitza) festa antolatuko dute herriko otabaleñoek urte bukaerarako. Abenduaren 29an hasi eta leian amaituko da Zaragueta eskolan egingo den jaia eta zenbait ekintza izango dira bertan: dantza, musika, kirola, desfilea eta beren janari tipikoa.

## ELIZA KATOLIKOA Sendotza

Datorren urtean sendotza prozesuan hasi nahi duten gazteek abenduaren 26an, 20:30ean, Orioko elizara azaldu beharko dute izena ematera. Aiakoek, berriz, urtarrilaren 3an, ordu berean izango dute aukera. Horrela jakinarazi dute Aiako eta Orioko parrokiak. 2008an 16 urte beteko dituztenei edo sendotza hartu gabe dauden 16 urtetik gorakoei zuzenduta dago deialdia.

## GAZTERIA Espekulazioa

*Egungo etxebizitza politikarekin No futxur* lemapean, Kostan ematen den espekulazioa salatzen eguna antolatu du Gazte Asanbladak urtarrilaren 11rako. 19:00etan elkartuko dira plazan eta herriko etxe hutsi seinaleak jarriko dizkiete. Hitzaldia eta kontzertua ere izango dira, besteak beste.

# LEIHOLAN

Aholkularitza tekniko eta erakusketak

<p style="text-align: center;"><b>Fabrika</b> Agote Industriales Agote, 5. 20740 Zestoa</p>	<p style="text-align: center;"><b>Erakusketak</b> San Frantzisko, 1. 20600 Zamutz</p>	<p style="text-align: center;"><b>Aita Lertxundi, 21.</b> 20810 Orrio Tel: 943 89 49 36</p>
---	---	---

Pinturak

## ELKAR

pintura eta paperatze lanak zoru leunketa

Abendaña Industriales  
943 83 08 45 / 619 60 23 35  
ZARAUZ

HERRITARREK ANTOLATUTAKO EKINTZEK IZAN ZUTEN ARRAKASTARIK HANDIENA SANIKOLASETAN

# Herritarren parte hartzeak festa giro bikaina sortu zuen

Sanikolasak joan dira eta orain da jaien balorazioa egiteko ordua.

Orokorrean, gustura agertu dira antolatzaileak aurten egindako lanarekin, baina sanikolasetako parte hartzea eta giro bikaina azpimarratu ditu festa batzordeak, batik bat.

Txosnak plazan jartzeak giro bikaina sortu zuela garbi geratu da eta ikastola aurreko haurren txokoak ere arrakasta izaten jarraitu du. Gaueko musikarekin ere asmatu da, antolatzaileen ustez.

Herritarrek antolatutako ekimenak izan dira jende gehien erakarri dutenak, ikusi besterik ez zegoen Karelana *Heldu* herri kirol taldearen inguruan sortu zen giroa edota saskibaloi txapelketan, zaldi karreran, sagardo partiketan... jendea erraz bildu zen jaiekin gozatzeko.

## HOBKUNTZAK

Hurrengo festetarako zer hobetua ere badela adierazi du



Parte hartzearen adibide garbia izan zen herri kiroletan aritzeko bildutako lagun guzti hauena.

KARKARA

festa batzordeak egin duen balorazioan. Festa plazatik haratago eramateko eta komun publikoen beharra ikusi dute, esaterako.

Aurreko urteetan baino

txikizio gutxiago izan dira. Hala ere, 4 kontenedore erre zituzten; zubiko semaforoa eta elizako zimitorio berriko metalezko barrak txikitu zituen norbaitek; plazako igo-

gailuko ateko bisagrak ateratzeko astia ere hartu zuen baten batek; uretan agertu ziren udaletxe atzean eta musika oholtzaren inguruan zeuden 5 hesi hori ere.

**jaletxea**  
logelak  
**gazteategi**  
Elkano auzoa  
943 13 16 06

**ERROTA**  
- Eztei ospakizunak  
- Banketesak  
- Karta zabala  
- Eguneko menua (lanegunetarako)  
- Oheak  
Tfnoa: 943 83 54

**AHOLKULARITZA**  
Fiscal, laboral, kontables  
**Eugenio Garmendia**  
ASEGURU ARTEKARIA  
IBAI ONDO, 1  
Tel: 943 83 44 66 - 943 83 49 17

**Goizeko**  
KAFETEGIA  
943 83 28 55  
Aita Lorbundi, 33 bidea - ORIO  
Autobus parada ondoan

**RAMIRO**  
argazkiak  
www.fotoramiro.com  
fotoramiro@fotoramiro.com  
610 69 76 68  
943 83 10 48

**Gabon**  
TABERNA  
Plater, hotzak, pintxoak  
Tfnoa: 943 83 06 09

DATORREN URTEAN MUNDUKO TXAPELKETAN ARITZEKO GONBITA JASO DU

# Gara Falconet Piriniotako motokros kopan txapeldun

**Gara Falconetek bukatu ditu aurtengo lasterketak eta nola, gainera! Piriniotako kopako txapelduna izan da, nagusitasun osoz.**

Abenduaren 9an lortu zuen Gara Falconetek txapela eta egun horretan bertan jokatu ziren denboraldiko azken bi lasterketetan, Santa Coloma de Farnesen (Herrialde Katalanak), bera izan zen onena bietan, bai bere kategorian baita gainontzekoetan ere.

Hiru egun lehenago, abenduaren 6an, beste proba irabazi zuen San Cebria de Vallalta: bi txandetako azkarrena izan zen kategoria guztietan.

## TEAM BATEN GONBITEA

Txapeldun berriak merezitako deskantsua hartzeko aukera izango du neguan, datorren urterako indarrak hartzeko. Munduko txapelketan parte hartzeko gonbita egin dio Team edo atzerriko talde batek baina, oraingoz, ezetza eman die. Izan ere, ikasketekin jarraitu nahi du eta baietza emanaz gero, ezingo lituzke, motoa



Garak onenen pare dagoela erakutsi du, beste behin.

KARKARA

eta ikasketak, biak uztartu. Teamak osatzen dituztenek motokrosa dute bizibide eta hari eskaintzen diote denbora osoa. Hortaz, datorren urtean ere Katalunia aldean arituko da Gara. Agian, Frantziara joango da munduko

txapelketako lasterketara. Baina ez daki ziur, proba ekainaren 15ean izango da, azterketak gainean izango ditu eta lasterketa gunea 800 kilometrorra dago. Denborak esango du ea han ere nagusitasuna erakusterik baduen.

## LABUR

### ATLETISMOA San Silbestre

IV. San Silbestrea ospatuko da abenduaren 31n. 12:00etan hasiko da eta 5,5 km-ko ibilbidea izango du: Ikastola paretik hondartzara joan-etorria aurrena eta zubi azpira beste buelta. Haurrek, aldiz, bigarren hori bakarrik egingo dute. Karelan eman daiteke izena 2 euroren truke.

### DEMA Kintopekoa

*Bixikiak* pareak izan zen irabazle Aiako VÍ. Kintopeko idi probetan. *Urgain* harriarekin 52 plaza 0 zinta eta 0 metro egin zuen 76.5 kiloko gainzamaekin. Ikusle asko ibili zen astelehen eta asteartean.

### SOKASALTOA Errekor bila

Abenduaren 26an, 14:26 minutu azpitik 3.000 salto egiten saiatuko da Julio Aranburu oriotarra Zestoako Kiroldegian.

Errekor berri jartzeko 210 saltoko bataz bestekoa egin beharko ditu minutuko.

Aita Lertundi 23

# Baraka

taberna

Gosarik, pintxoak,  
kaxulitak,  
plater konbinatuak.

gaiterak...  
musika eta kopak!

Gure  
Txoko

Antzara Kalea

Igo zaitoz haize berrietara!

# Galeria I

943890416 - 677149932  
galeria1orio@hotmail.com

AUTOAK AUKERA ONEAN

AIA ORIO

Telefonoa: 943 13 04 38

AMILIBIA  
eNTZIELAK, S. L.

larri pertsonen produktu  
eta instalazioak

guz erabilako lekuetatara  
arazo-ortuzak

Obstakatu gaitza auzoa, 52  
34 943 83 08 29  
faxa 34 943 89 40 81  
amilibia@amilibia.com  
www.amilibia.com



## ARETO FUTBOLA

## Txapelketa

Orioko Tabernak taldeak Gabonetako V. Areto Futbol Txapelketa antolatu du. Abenduaren 22an jokatuko dira lehen partidak eta finala, berriz, urtarrilaren 6an, Errege egunean, izango da. Karelana jokatuko dira, baina zein ordutan izango diren erabakitzeko dago oraindik.

## SARIAK

Urtero bezala, Txapelketa lehenengo 4ek saria jasoko dute: 500 euro eta trofeoa irabazleak; 250 euro eta trofeoa txapeldunordeak; 100 euro eta trofeoa hirugarrenak eta trofeoa besterik ez laugarrenak.



Karelana jokatuko da Txapelketa.

## AURREA HARTU EZINEAN ARITU ZIREN HERRIAN JOKATU ZEN FINALEAN

## Eizmendi eta Aizpuru txapeldun orde, iaz bezala

Aurten ere txapeldun orde geratu dira Migel Anjel Eizmendi eta Jon Aizpuru aiarrak.

Migel Anjel Eizmendi eta Jon Aizpuru aiarrak Gipuzkoako klubetako pala gomaz txapelketako txapeldunorde izan dira, bigarren urtez segidan. Larunbatean jokatu zuten finala Aian eta iaz lortu zuten emaitza berberarekin amaitu zen partida: 18 eta 25.

## FINALA BERA EZ DA GUTXI

Oso parekatuak zeuden bikoteak 6na iritsi bitartean, baina hortik aurrera atzean gelditzen joan ziren aiarrak, gehiago egindako akatsengatik kontrako abileziagatik baino. Real Sociedadeko Imanol Zumeta usurbildarrak eta Guillermo Antxordoki nafarrak zazpi tantoko alde aterazieten aiarrei 14 eta 21era iritsi zirenean, baina nahiz eta hurrengo puntuak oso borrokatuak izan, herriko pilotariek ezin izan zuten alde murriztu. Jonek oso ondo kokatu zuen pilota 16ra iristeko, eta Migel Angelek ber-



Finalera iritsi ziren Eizmendi eta Aizpuru; baina ezin izan zuten irabazi. KARKARA

din 17ra eta 18ra ailegatzeko, baina partida amaitu arteko ondorengo puntuak beste zatitan izan ziren. Gogotsu aritu ziren aiarrak ordubete eskas irauan zuen lehian eta penaz

bukatu zuten partida, baina Jonek garbi zeukan lortutakoa ez zela gutxi: *Finalera iritsi gara eta hori lorpen handia izan da, txapela datorren urterako utzi beharko dugu.*

OBRA PROIEKTUA  
ETXE BERRIKAN EGINDAKO  
ZAHARRERATZETZEKO KANPOTIK  
ETA BARNUTIK  
HERBILGAI PROIEKTUAK  
GARA ZUZELGARITZA  
INDUSTRIAK

IMANOL AGUIRRE MANTEROLA  
ARKITEKTOA

MOBILA: 636-957-480  
ENDA BERRIKETA 2007

INDO

Garraio frigorifikoa  
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

HERRI IKASTOLA

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8  
TEL. 943 83 47 04  
FAX: 943 13 09 38

A&E  
The Academy of English

Justo kalea 3, Zarautz | Ibai Ondo pl 8 Orio

Tel. 943 00 42 44  
943 83 51 91

PEDRO MARI MARIN MURILLO | ETXEZ ETXEKO FRUTA SALTZAILEA

# “Etxez etxeko salmentari ez diot etorkizunik ikusten”

Furgoneta hartu, erosketa egin, kargatu, eta Aiara abiatzen da asteazkenero Pedro Mari Marin andoaindarrak, etxez etxeko fruta eta barazki saltzailea. Horrelako gutxi gelditzen dira. Bazkaltzeko orduan harrapatu genuen lanbidearen inguruan hitz egiteko.

## Nolakoa da zure eguna?

Asteasutik Andazarratera abiatzen naiz. Handik Aiako kaskoko etxe batzuetara jotzen dut. Gero, Lokatetik behera, eta bidean baserri baserri joaten naiz Errotaraino. Bertan generoa utzi eta bazkaldu egiten dut. Ondoren, Arruti aldapatik igotzen naiz Aiara, eta handik etxera! Auzoetako etxe eta baserrietan saltzen dut, Aian 15 baten, eta norbaitek interesa badu, dei dezala 607603141 telefonora eta Pedroren galdera egin.

## Nolako gauzak erosten dizkizute?

Baserrietan, urtaroaren arabera. Momentu honetan porruak, azaloreak, tomateak... badituzte; beraz, horiek beste garaietan bai, baina orain ez dut asko saltzen. Laranja, mandarina, melokotioak, platanok... bai. Eskaintza zabaltzeko, gauza desberdinak ekartzen ditut, aguakatea edo fruta tropikalak, adibidez, baina gehienek betikoak eskatzen dituzte. Gero, Gabonetan fruitu lehorrik izaten ditut eta piña. Baina, egia esan, azken hogeitertan fruta eta barazkiak jateko ohiturak ia-ia ez dira aldatu.

## Eta hortik bizi zara?

Aita honetan aritzen zen, eta ni 1985ean hasi nintzen, lehengo lanbidea utzita. Aian, berriz, orain dela 12 bat urte



Pedro baserri baserri aritzen da asteazkenero tratua egiten.

KARKARA

**Aurrez aurreko harremanak asko balio du: etxeko pozak eta tristurak kontatzen dizkirate, eta nik haiei kanpoan pasa direnak.**

hasi nintzen. Gaur egun ia ez da gelditzen honetatik eguneko ogia ateratzen duenik; ni bezalakoak, hiruzpalau izango dira, akaso. Justu bizitzeko egiten da, baina etorkizunik ez du. Jendea komertzio handietara joaten da, baita baserrietatik ere. Jendea sen-

**Gaur egun ia ez da gelditzen horrelako lanekin soilik eguneko ogia ateratzen duenik: ni bezalako hiruzpalau izango dira, akaso.**

tsibilizatzea nahiko nuke, ez baitira konturatzen diru gehiago xahutzen dutela hala-koetara joanez. Pare bat eskaintza berezirekin erakartzen dute jendea, baina erosten dutenaren erdia garestiago ateratzen zaie, beharrik ez zutelako. Gainera, frutaren

kasuan, ehunka eskuetatik pasatako generoa da, horrek ekartzen duen kalte guztiarekin. Azken batean, diru gehiago gastatzen dute, eta gaizki. Saltzaile txikiak beste zerbait eskaintzen du, eta ez bakarrik genero aldetik.

## Beste zein aldetik, bada?

Aurrez aurreko harremanak asko balio du: etxeko gauzak, pozak, tristurak kontatzen dizkirate, eta nik Tolosan pasa dena edo feria berezi bat non antolatu den... Denda handiko kaxeraren ondoan bip!bip!bip! besterik ez duzu entzuten, dirutza utzi eta, hala, kanpora! Gure artean konfiantza dago: badakite genero ona ekartzen dudala, baina aleren bat txarra tokatuz gero, beste bat ematen zaie.

Bestalde, ez dugu inolako zaborrik sortzen, etxeko ota-rean eramaten dute guztia, eta kaltetutako generoa baserriko animaliei ematen diet. Tratu pertsonala oso inportantea da. Alde horrek, aitor-tu behar dut, asko betetzen nau.

## Bestela, ez?

Asko, ez. Animoa galduta nago, etorkizunik ez baitiot ikusten. Lan gogorra da, goizean goiz jaiki, pisu handiak altxa, erlojuari begira egon —betiko orduan iritsi behar baita—, ez dakizu zenbat salduko den, denda handiekin lehiatzea alferrikako lana da... Lehen autoen karrozeriarekin egiten nuen lan, eta gustatuko litzaidake horretara bueltatzea. Hori bai, autonomo gisa, ez baitzait gustatzen inoren menpe lan egitea.

Baina, bitartean, esandakoa: lanbide berezia da, komertzioa eta zuzeneko harreman pertsonala uztartzen duena.

GASTU HANDIENA INBERTSIOETAN EGINGO DA

# Aurrekontua onartu da EAJren aldeko 6 botoekin

Hilaren 11n onartu zen 4.091.208 euroko udal aurrekontua, EAJren aldeko 6 botoekin. ANV-EAEn 3 hiru zinegotziak abstenitu egin ziren.

2008ko ekitaldirako Udalaren aurrekontua 2.554.240 eurokoa da eta gastu handiena, 880.206 eurokoa, inbertsioetan egingo da.

Hezkuntza arloan, Lardizabal eskolaren etorkizuna ikertzeko 6.000 euro eta azpiegiturak hobetzeko 30.000 euro jarri dira, eta haur eskolako goiko gela egokitzeko 24.000 euro.

Bizilekuen ingurua hobetzeko, Santion haur parkea egingo da eta frontoi ingurua txukundu. Olaskoegia eta Andatza auzoetan gasa sartzeko lanekin jarraituko dute. Kaskoan, haur parkea jarriko da Armendi Gainean, eta komun publikoak egingo dituzte kaskoan zein Urdatan. Aia osoan, farolak aldatuko dituzte pixkanaka, argia alferrik ez galtzarren, eta seinale handiak jarriko dira Aia eta auzoen lotura azpimarratzeko. 50.000 euro jarri frontoi aurreko errepidea beste era batera egokitzeko, oinezkoentzat seguruago izateko.

Urari dagokionez, Agerresoro Handi ingurura ura eramateko, 24.000 euro jarri dira obraren zati bat egiteko. Eta 70.000 euro jarri dira Pagoe-ta parkean erletegiari buruzko azterketa lana egiteko.

Bestalde, 2008an Euskal Herriko Itzulia Aian bukatuko denez, 24.000 euro jarri dira egin beharko diren moldaketetarako. Eta garraio publikoa sustatzeko 30.000 euro jarri dira.

Aurten 1.000 euro gehiago egokitu zaie KARKARA eta Hitzari, eta euskara ikasteko kopurua 1.000 eurotik 3.000 eurora igo da. Hitzez emaku-



Eskolaren etorkizuna aztertzeke taldea sortu da.

KARKARA

## EAE-ANV eduki askorekin ados egon arren, ez dago konforme Aia Lantzen lanarekin

me baseritarren elkarteak 1.000 euro jasoko du eta haur eskolaren guraso elkarteak 450. Diru sarrerak kontuan hartuta, 80.564 euroko mailera beharko du Udalak.

### AIA LANTZEN

Eraikuntzak egiteko Udalak sortutako erakundeak 1.536.968 euroko aurrekontua du, eta zatirik handiena lokal komertzialetan gastatuko da, 602.260 euro. Armendi Gaineko urbanizazioaren zati bat ordaintzeko 80.000 euro gorde da, eta Santioko 4 etxebizitzien %80rako 461.576 euro,

eta brigadaren eraikuntza egiteko 205.791 jarri dira.

Diru sarrerak Armendi Gain eta Amets Gaineko garajeen eta trasteroen eta Santioko etxeen salmentetatik eta eraikin komertzialak hartuko dituztenen diru aurrerapenetatik etorriko dira.

### EAE-ANV-REN ABSTENTZIOA

Aurrekontuaren eduki askorekin ados badira ere, eta EAE-ANVkoek egindako ekarpen batzuekin osatu bada ere, abstentzioaren zergatia adierazi digu Maitane Arrillagazinegotziak: *Orokorrean ez dugu gaizki ikusi, baina diru asko dago Aia Lantzen eta bere gestora Esarber erabiltzeko. Gure iritzirako, oso gaizki funtzionatu dute. Lokal komertziala egitearen kontra gaude, erabat, eta ez gaude ados Esarberen kudeaketarekin. Zatika ezin da bozkatu, baina ezezko borobila ere ez da izan.*

## LABUR

### AISA Gabonetako agenda

Aisialdiko ekintza asko antolatu ditu Lardizabal eskolako guraso elkarteak datozen egunetarako.

### ESKEA KANTARI

Gabonetako eskearekin hasiko dira hilaren 24an: 9:00etan plazan elkartu eta goizez auzo auzo joango dira kantatzen, eta 17:30ean berriro, kaskoan. Elkarteok jendea animatu nahi dute —guraso, ume zein herritar— parte hartzeko eta eguna girotzeko kantaldi guztietan euskal jantziez jantzeko.

### ZINEA

Zine emanaldiak ere antolatu dituzte. Marrazki bizidunak (MB) zein filmak (F) 17:30ean emango dira kultur etxean.

Programa honako hau da: 26an *Shrek 3.a* (F gaztelaraz); 28an *Lagundu! Arraina naiz* (MB euskaraz); 31n *Los Simpson La Película* (F gaztelaniaz); 2an *Maitagarri amandrea* (F euskaraz); 3an *Locos por el surf* (F gaztelaniaz); 4an *7BBB, Zazpi, Buru betezazpi* (MB euskaraz); eta 5ean *Ratatouille* (F gaztelaniaz).

### TXANGOIA PIN-ERA

Irteera antolatu dute Irungo PINera joateko 27an. 14:30ean aterako dira eta 18:30ean itzuli.

Izena eman behar da abenduaren 26rako Iturrioz tabernan eta 5 euro ordaindu.

### ZIRKO TTIPIA

Urtarrilaren 5ean *Zirko Tipia* etorriko da herriko frontoira *Giriguai* emanaldiarekin 11:30ean. Sarrerak eskura daitezke Iturriozena tabernan urtarilaren 4a arte, 2 eurotan, eta emanaldia hasi baino lehen 4 eurotan frontoian bertan.

## AIAKO LEIHOA

# Gauonak badatoz

**O**roitzapenez atzerago jua gabe, nere mutiko garaietatik asi eta ondorengo urte mordotan ospatu izan genituen gauon aiekin gogoratzen naiz. Garai artan etxetik kanpora, lanean edo zerbitzen, genbiltzan guztiok gauon afaritara bakoitza bere jaiotetxera biltzen ginan, eta sendi giro ederrean pasatzen genituan eguberri jaiak. Geienak beartsuak ginan orduan, baña billera zoragarri aiek aberatsak zirela aitortu bearra dago.

Gaurberri, bizimodu eroso eta osatutako baten jabe da geiengoa, alde hortatik aberatsak dira; baña sendi giroan, arlote eta biurri dabilta-

nak ugari daude, eta baita ere beren sorlekua utzi eta urrutietako parajetara dijoazenak gauon jaiak pasatzera, an zoriona billatuko dutelakotan; baña, zoritxarrez, geienak aurkitu gabe itzultzen dira.

Nere bizitzan, orokorrean, gauonak ondo pasa ditudala iruditzen zait, baña gauon

**Geienak  
beartsuak ginan  
orduan, bana  
billera zoragarri  
aiek aberatsak  
zirela aitortu  
bearra dago**

egun batez gauza berezia gertatu zitzaidan, eta uraxe kontatzen aleginduko naiz.

Nik amazpi urte nituan urte artan, gauon eguna igandean gertatu zan, eta ni ere, beste asko bezela, beatzitako mezetara jun nintzan. Elizatik irten ginanean arrain saltzalle batek bixiguak zozke-

**Nik tira bakarra  
artu nuan, orduan  
dirua urri izaten  
baizan, eta  
nonbait nere  
suerteko eguna  
izan**

tatzeko amarna zenbakidun tira batzuk pesta banatan saltzen ari zan; nik tira bakarra artu nuan, orduan dirua urri izaten baizan, eta nonbait nere suerteko eguna izan, eta iru bixigu eder neroni tokatu. Orduantxe bixiguak listatik zintzilik artu eta nik eraman nuan poza ez zegoen neurterik; eta aiek ikustean nere amak artu zuan poza nere bano ere aundiagoa izan zan. Gaurko ikuspegitik begiratu eta gauza utsa dira iru bixigu, bana ordurako suerte aundia zan ura; gauza urri dagoenean estimatzen da. Bai orixe.

JOXE MARI LERTXUNDI

\*Gipuzkeraz emana, egileak hala nahita

## TXOKOAK ETA JENDEA




## Ibarrolabeko kapoia, irabazle!

Lehenengo saria eraman zuen Nekane Gonzalezek Santa Luzia egunean, Zumarragan egin zen azokan, Euskal arrazako kapoia atalean. Marraduna motako kapoiak ditu Nekane Ibarrolabeko baserrian, eta azken urteetan sari asko irabazi ditu hegaztiakin; iaz ere, aurrenekoa izan zen Zumarragan.

**Dorronoro Denda**  
1961etik zure ondoan  
**AUKERA HANDIAGOA  
FRUTATEGIAN**  
Tel 943 83 09 37

**ITB**  
**Bisagraren Industria Teknikoa, S.A.**  
Era guztietako bisagrak  
Kazoletan gordetako bisagrak  
Kristalezko ateen bisagrak  
Bisagra automatikook, etab.

Aranguren Industrialdia - Santiago buzoa  
20186 Aiz (Gipuzkoa)  
Tel. 943 83 05 08 - C/29 Oriz - Telefaxi: 943 13 38 62



1. saria: Koro Arratibel

## San Nikolas jaietako irudi onenak

*Aurtengo San Nikolas jaietan argazki lehiaketa antolatu du, hirugarrenez, Udaleko Festa batzordeak. Guztira 150 argazki aurkeztu dira eta, epaimahaiak esan digunez, zaila izan da aukeraketa. Sariak hiru bakarrik dira; baina aurkeztutakoen artean argazki asko ziren erakustea merezi zutenak. Horietako batzuk aukeratu eta hemen erakusten dizkizuegu.*



2. saria: Joxe Antonio Lizarralde



3. saria: Antonio Abad



Koro Arratibel



Koro Arratibel



Mikal Etxeberria



Saioa Perona



Luis Lizarralde



Urtzi Garmendia

# Ni Gipuzkoa naiz.

**Giztiak gara Gipuzkoa.**  
Zurekin egingo dugu Gipuzkoa. Eta Gipuzkoa hobea lortzeko  
pausoak emango ditugu guztion artean. Plana aurrera egitea da.

**2007/2011 Kudeaketa Plana**



**GIPUZKOA**

zurekin, aurrera 



*Hilabeteak zain  
egon ondoren,  
herriko gazteek  
laster izango dute  
Ametsa gaztelekua  
zabalik. Izan ere,  
Udalak egindako  
lehiaketa  
publikoan  
Txurrunuskiko  
lagunek lortu dute  
Ametsa kudeatzeko  
ardura  
beregantzea.  
Txurrunka  
proiektuaz aritu  
zaizkigu Beñat  
Solaberrieta eta  
Ekhiñe Saizar*

LORE BERSALUZE

**Z**uen lana aztertzen hasita, izenaren galderara egin behar: non-dik dator Txurrunka?

Gure proiektuari izena ematea egokia iruditu zitzaigun hasiera batetik. Horretan ari ginela, astetarte buruzuri bateko goizeko ordu txikietan, taldekide bati bururatu zitzaion izena. Proiektua hau erronka handia izan da guretzat, beraz, Txurrunuskiren erronka da Txurrunka. Bestalde, eta hitz jokuekin jarraituz, Ametsa denez gaztelekuaren izena, zurrunkatik Txurrunka ekarri dugu (kar, kar). Momentu kaotiko batean atera zela kontutan hartu behar da.

**Azaldu ieazkiguzue zuen lanaren ardatzak.**

Lehenik eta behin, gure proiektua herri ikuspegitik lantzen saiatu gara aipatu nahi dugu, Euskal Herriko egoera kontuan hartuta, jakina.

Herriko gazteei zenbait



KARKARA

BEÑAT SOLABERRIETA ETA EKHIÑE SAIZAR | TXURRUMUSKI

“*Herritarrek herriari eskainitako zerbitzua da Ametsa gaztelekua*”

balio ezagutaraztea da gure helburua. Aisialdia modubai-kor eta sortzailean bizitzea nahi dugu. Parte hartzea bultzatu nahi dugu, herriaren parte izan daitezen. Errespetua oinarritzako balio gisa sustatu nahi dugu. Azken finean, herriko gazteen elkargune izan nahi du Ametsak.

Helburu horiek betetzeko Oriok dituen baliabideak erabiliko ditugu: espazioak, elkar-teak, instalazioak...

### Norentzat izango da gaztelekua?

10-16 urte bitarteko haur eta gazteak hartuko ditugu bertan. Badakigu adin horietan sei urteko tartea nabarmena dela, dituzten beharrak ez baitira berdinak, eta ekin-tza batzuk egiterakoan banatu egingo ditugu: 10-12 eta 12-16.

### Eta nola kudeatuko duzue?

Lehen esan bezala, idea, pentsaera eta helburu pedagogiko horiek lantzeko plangintza egin dugu. Hiru ekin-tza-multzo izango ditu. Hilabetekoa: hilero balio bat aukeratuko dugu eta hori lantzeko gaiak jorratuko ditugu, asteburuetan, batez ere.

Bigarren multzoan asteko dinamika daukagu, astero biltzen direnentzat egokia dena. Hilabeteari dagokion balioa lantzeko ekintzak izango dira: ideia zaparrada, galdera eta kezka jakinarazi, giroketa kartelak eta abar. Errepasoa eta ebaluazioa azken astean.

Bestalde, norbait gaztelekura tarteka joaten bada, eguneroko dinamika gisa, ping-pongeko mahaia, ordenagailua, bileretarako mahaia, informazio txokoa eta mahai jolasak izango ditu eskura. Azken finean, loturarik eskatzen ez duen jolas sorta izango da, inor galduta senti ez dadin balioko duena.

### Eta zein izango dira, bada, balio horiek?

Lehen ikasturterako parekidetasuna, kultur aniztasuna, osasuna, naturarekiko errespetua, hezkidetzak, euskara, gizartean kezka sortzen

duzen gaiak, ezinduen integrazioa, lankidetzak, kontzientzia eta elkarregintza landuko ditugu. Gai bakoitzak helburu zehatzak ditu. Adibide bat jartzearen, parekidetasuna jorratzerakoan, hiru xede izango ditugu: denok gizakiak izanik esku-bide ber-berekin jaiotzen garela ohartaraztea, errespetuan oinarritutako elkarbizitza lantzea eta sexu, arraza, gizarte-maila ezberdinetako jendea, guztiok, berdina garela transmitzea.

Hilabete amaieran ekin-tzen eta jarreraren balorazioa egingo dugu. Berriz ere lantzea beharrezkoa edo egokia den erabaki beharko da orduan.

Proiektuan ageri den guztia gure buruetan dago, baina ez dugu fisikoki oraindik landu. Jendearen arabera gauzak aldatuz joan litezke. Herri-tarrek gure asmoen berri izan dezaten nahi dugu eta haiekin egindako batzarren bidez, ekarpenak jaso nahi ditugu, gero gure plangintzan aplikatzeko.

### Zenbat hezitzailek jarriko dute martxan proiektua?

Hiru langilek biren postua beteko dute. Ekhiñe Saizar, Aritz Gonzalez eta erabaki gabe dagoen hirugarren bat izango dira bertako ardura-dunak.

### Egutegia zehazturik al dago?

Urte hau berezia izango da, baina gerora gaztelekua irailtik ekainera bitartean egongo da irekita. Ikasturte hasierako astea, hala ere, prestaketari eskainiko genioke eta publikoarentzat itxita egongo da.

Udako oporretan Ametsak ateak irekiko ez baditu ere, uztailean bertako hezitzaileek goizez egingo dute lan, hurrengo ikasturterako proiektua diseinatu, ebaluazioak egin eta herriko eragileekin batera plangintza ondo osatzeko.

Egun edo garai berezietan, Gabonetan eta Pazko Astean, esaterako, zerbitzua eguneroko egongo litzateke.



Astean egun bakarrez itxiko da gaztelekua eta zein izango den erabakitzeko dagoen arren, astetartea izan behar duela argi dago, hala eskatzen baitzen lehiaketako pliegoetan.

Astetarteetan, ostegunera bitartean, 17:00etatik 20:00etara irekiko da. Ostira-

letan, ordubete beranduago itxiko da. Larunbatetan, aldiz, 16:30etik 21:00etara egongo da zabalik eta igandean, berriz, 20:00ak arte. Hala ere, egutegi zehatza Udalarekin adosteko daukagu oraindik. Horrela, zerbitzu osoa eskainiko diegu bai gaztetxoei, baita herriari ere.



KARKARA

### **Txurrumuski asialdi taldeak ekintzak antolatzen jarraituko al du?**

Bai, inolako zalantzarik gabe. Txurrumuskitik 3 liberatu aterako dira, baina gainerakoan berdin jarraituko dugu. Lehen bezala, urteko plangintzak egiten jarraituko dugu: udaleku irekiak, Txu-

rrukara irteera, barne-bilerak, Gabonetako eta inauterietako jarduerak... Denok bertakoak izanik, batak ez du besteakenduko. Batak bestearen osagarri izan behar du. Bide horretan, Txurrumuski eta Ametsa gaztelekuko ardura-dunak elkarlanean arituko dira askotan.

### HELBURUAK

**“Herriko gazteek aisialdia modu baikor eta sortzailean bizitzea nahi dugu. Parte hartzea bultzatu nahi dugu, herriaren zati izan daitezen. Azken finean, herriko gazteen elkargune izan nahi du Ametsak”**

### METODOLOGIA

**“Idea, pentsaera eta helburu pedagogiko batzuk lantzeko plangintza egin dugu. Hilero balio bat aukeratuko dugu eta hori lantzeko hainbat gaia jorratuko ditugu”**

### HERRIAREKIN BAT

**“Herritarrek gure asmoen berri izan dezaten nahi dugu eta berekin egindako batzarren bidez, dituzten ekarpenak jaso nahi ditugu, gero gure plangintzan aplikatzeko”**

### EGUTEGIA

**“Aurtengo urtea berezia izango da, baina gerora gaztelekua irailetik ekainera bitartean egongo da zabalik. Astean behin bakarrik itxiko da gaztelekua eta zein izango den erabakitzeko dagoen arren, astetartea izan behar duela argi dago”**

### IREKIERA

**“Udalak gure gain utzi du irekitzeko eguna zehazteko ardura. Momentuan gaztelekuan ditugun beharrak aztertzen ari gara. Hala ere lanean hasteko gogoia badaukagu eta urtearen hasierako dena martxan izatea da gure asmoa”**

### **Eta noiz zabalduko dituzue Ametsako ateak?**

Udalak gure gain utzi du noiz ireki erabakitzeko ardurara. Momentuan, 4 paretak eginda daude eta gure beharrak aztertzen ari gara. Tokia ez da handia eta, beraz, mugitzeko errazak diren elementu plegableak eskatuko ditu-

gu. Pentsa, hitzaldiren baterako aulki asko jarriko ditugu, beste saioen baterako mahaiak beharko dira... Hori posible nola egin pentsatu behar dugu orain.

Lanean hasteko gogoia badaukagu, eta urte hasierako dena martxan izatea da gure asmoa.

## ADARRETATIK HELDUTA

# Kirol berri bat dugu

**A**spalditik Madrilgo komunikabideetan kirol berri bat bailitzan informazioa helarazteko era xelebrea dihardute. Kirol berri hori jakin gabe kritikatzeko da, hain zuzen, edo, beste era batera esanda, gai batetaz informazio izan gabe ere iritziak patxada osoz esatea. Lehen Madrilen egiten diren irratsaioak entzuten joaten nintzen lanera, batez ere Elizaren irratia deitzen dioten horretan entzun ahal zen saio bat, Federico izeneko batena. Irrati kate horretan, batez ere, euskal gizartearekin zer ikusia zuten gai askotaz hitz egiten zuten; noski, hizketaldian parte hartzen zuten *tertuliano* famatuetatik hemengoak inor ere ez. Entzuten nituen, hainbat *tertuliano* jakitun, noski jakitun, baina jakin gutxi, batez ere euskal gizartearen egoeraz. Hitz egin bai eta kritikatu ere bai noski, baina garrantzirik ba al du, ba, kritikatu behar den gaietaz jakiteak?

Irratiaz gain noski, telebistan ere ohikoak egin ziren eguerdietetako *tertulio*ak, hau da, beti jende bera mila gazetaz hitz egiten, asko eta asko Euskal Herriko gaietaz hor ere. Nik ez dakit, baina askotan pentsatu izan dut Euskal Herriko gabe programa horiek nahiko lan izango luketela beren programazioa betetzeko. Irratian bezala telebistako saioetan ere, kritikatzeko zen kirol nazionala; noski, ideiarik ere



JON REDONDO  
ORIOKO ALKATEA

## Gauza onen ordeztarrak azkar zabaltzen omen dira eta kirol hau ere geurea egin dugu

jakin gabe hitz egiten zen gaietaz. Espainiarrentzat ez omen ziren zenezakiada kirol nazionala.

Baina, tamalez, gauza onen ordeztarrak azkar zabaltzen omen dira eta kirol hori ere geurea egin dugu. Azken egun hauetan ikusi bestela Realeko presidentziara doazenak hizketan: Fuentes txarra dela, Badiola ez dela fidatzekoa, Santos koldarra dela ez aurkezteagatik... Eta noski, kritikatzeko hasiz gero, komunikabideak ere beren saltsan, orriak eta orriak betez. Kirol berria ere negozio bilakatu dute.

Eta, noski, Orion ere ezin gara atzean geratu eta, kritikatzeko hasita, gu ere kirol

berriaren aldeko. Eta, nola ez, politikan ere kritikatzeko nagusi. Baina astebukaera honetan egunkari batean zer irakurriko eta, EAJ-PNVren artikulua non eta probokazioetan ez dela sartuko dioten. Gure alderdiaren ustez gatazka politikoa kalera irten ari da egunero eta orduoro eta jendea nazkatzen ari da, beti gauza berak entzuten eta politikan konfiantza galtzen ari da. Estrategia politikoaren muina iraina bada, eta politikan gaudenak elkar ulertzeko eta gure arteko desadostasunak konpontzeko gai ez bagara, gauzak ondo egiten ari ez garen seinale da.

Bejondeigula hori egiteko gai bagara, non eta informazio izan ez eta kritikatzeko ibiltzea, kirol egin dugun honetan, zentzu pixkatekin jokatzeko hasteak poza ematen du. Ez dugu lan xamurra, ikusita azken asteetan bi aldiz batzokia pintadekin josi ditugula.

Nire ustetan kirol berri bat bilatu behar dugu eta kirol hau bestearen tokian jartzea izan beharko luke. Pentsatzen al duzue edozertaz edo edozeinetaz hitz egin aurretik bere lekuan jarriko bagina nola aldatuko litzatekeen gauza? Agian, gutxi xixeko hitz egingo genuke. Kirol hau ziur nago ez dela etorriko Madrildik, guk hasi beharko dugu hemendik bultzatzen, gure selekzio propioa eginaz gainera, eta, nahi badute, kopiatu gaitzate.

## NIRE HONETAN

# Hau da hau asmatu ezina

**P**ertsona neutralik ez da munduan, eta kontrakoa dioena... gezurretan ari da. Eta gu ez gara inongo salbuespena. Aingeruak ez, beharrik ere, baina, hondratuak bai. Hemen, KARKARAN, nork bere iritziak etxean uzten ditu *Mac*-aren teklatua hartzerakoan. Behintzat, notiziak lantzerakoan. Eta nekez esan ahal izango du inork informazioa, kaleratu aurretik, kontrastatzen ez dugunik. Beste kontu bat sinadura daramaten artikulua edo zutabeak dira, hau kasu. Hor nahasten da doako kritikagile asko.

Izan ere, batetik edo bestetik, jaso eta jaso gabilta beti. Hau da hau inorekin asmatu ezina! Eta nekatu egiten du. Baina tarteka, hara! Norbaitek irribarre egiten dizu esanaz halako artikulua gustatu zitzaioela, besteren batek eztaikit zein diseinurekin barre gogotik egin zuela... edo erredakziora opari banarekin agertzen zaigu beste, asteartean, Ertzako Pilar bezala (eskerrik asko!). Etxean dudak belarrak baino irribarre handiagoa eragiten du horrek eta eramangarriagoa egin tartekako desesperazio hau. Eta sinisten ez didanak erraza du. Eman dezala aste bat hemen, gurekin, eta ikusiko du nola Olentzero moilara berandu iristearen kulpak ere gurea zen. Aio!

PATXI URANGA

**URANGA**  
burdindegia  
Opari, menaje eta erremintak  
Telefax: 943 8312 36 Euzko Gudari, 5

**ITZIAR**  
kirolak  
Tel. 943 83 31 03

Joana Murgiondo  
Asegurari-agenzia  
ASEGURUAK  
CARAÑA, ZILVETI, LACORT Y CIA. S.A.  
Abeslari, 4- 2. esk.  
Tfnoa: 943 13 46 07

**KOLON TXIKI**  
Herriko Enparantza, 4  
ORIO  
Tel. 943 83 00 44

## MOILA BAZTERRETIK

## Gerriko mina



JOKIN SALSAMENDI

Azkeneko Moila bazterretik idatzi nuenean nire tonu ironikoa ulertu ez zuenik izan zen irakurleu artean. Egia esan, KARKARAN idazteagatik ez digute dirurik ordaintzen, ezta hamaiketako tristerik ere. Baina pozik egiten dugu eta ordainduak sentitzen gara,

nahiz eta makina burukomin sortu testuak eskribitzeak. Denak aitortzen hasita, nahiz tontoen gisa azaldu, kobratu ez, ordaindu egiten dugu askok gure poltsikotik, KARKARA laguntzaileak baikara bi herri-tan asko eta asko.

Hala ere, badirudi nik idatzitakoa sinistu dutela Udaltxean, ze beste aldizkaria, Orioko Plaza, sortu baitute 44.000 euroko presupuestoa lagun. Agian KARKARAK nahiriko diru zuela pentsatu zuten eta ez zuela propaganda instituzionalik behar. Jokin ordaintzeko adina diru badute, ederki zeudek hauek.

Ba, jakin, nire katxeta oso altua dela, baina KARKARAKo entzat doan ari naizela. Doan nahi dudana idatzi dezake dalako, zentsurarik gabe eta maiztertza politikorik gabe.

Baina gure alkateak ez

omen du nahi guk politikaz idazterik KARKARAN, eta ni Orioko seme ona naizenez, plazan jaioa, aiton-amona oriotar eta zortzi abizen euskaldunen jabea, beteko dut bere nahia. Hemendik aurrera Reala, eguraldia, mendia eta angulei buruz arituko naiz. Eta arraunari buruz... beno arrauna igual ez, ze politikarekin nahas daiteke-eta... hobeto arraunari buruz ere ez idaztea. Eta osasunaz, osasunari buruz bai idatziko dudala, ze osasuna neutrala da. Sasoiko egoteaz eta paseatzeaz arituko naiz, ze azkenaldi honetan gerriko minez nabil. Hego-haize ezak eta azaroan izan dugun desgraziak nire gorputzean eragina izan dute. Dirudienez, kontratura edo antzekoren bat dut gerrian, eta zangoaren muskulua txingurritzen zait. Horrek oinazea

**Egia esan,  
KARKARAN  
idazteagatik ez  
digute dirurik  
ordaintzen, ezta  
hamaiketako  
tristerik ere**

sorrarazten dit eta kojo egiten dut. Jakina, ez dizuet esango ze hanketatik egiten dudana kojo, ze hori, nire amona Paulinak zioen bezala, nik adina jakitea litzateke eta hori gehiegi jakitea da. Baina, lasai, tratamendu erraza baitu; KARKARAN idazterri utzi eta Orioko Plazan idazten hasa; ez hanka eta ez buru duen proiektua baita. Eta badakizue... hankarik ez duenak ez du kojo egiten!

edertegia  
**ANTILLA**  
jittelucei  
Alfonsu 1. Kalea 2 - TEL: 943 83 20 00

**ARISTERRAZU**  
jatebxea  
Andatza auzoa AIA  
Tel. 943 83 45 21

**ARKAITZ**  
Taberna  
Pinxoak,  
plater konbinaluak  
eta ogitarleko mundialak  
ABESLABI KALEA, 4      Tel: 943 83 16 57

FISIOTERAPIA - Gorkitz Aristegi eta Natalia Wierzbien  
NUTRIZIONISTA - Gabiete Alzasti  
**sinergia** investigacion fisioterapia  
Ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 ~ 685 71 85 95

**ACTIVA** Akobe  
ELEKTRAGAILUAK ETA SUKALDERO ALTZARIAK  
Juan Albizu  
Abeslari Kalea, 4 - Tel: 943 83 16 57  
20070 Orio

**TAILER MEKANIKO A**  
**MANTEROLA S/L**  
TYORROKAK - BALBUAK  
Santiago auzoa - 18 postakutza  
Tel. 943 830 743  
Fax. 943 134 634  
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net  
20 810 ORIO - GIPUZKOA  
AENOR kalitate ziurtagiriduna

**LIZASO**  
dekorazioa  
Ezko Gudariak 18, Tel: 943 83 01 84 Fax: 943 83 12

**SOLOZABAL**  
autoeskola  
Eusko Gudari, 30-1. ezk  
telefon: 943 83 08 12

## KRITIKA



Txistuarentzat moldatutako bost pieza jaso dira Juan Rekartek ekoiztutako grabazioan.

KARKARA

## Organoa eta txistua elkarlan bikainean

Eginda genuen hitzordua Durangoko azokan eta, beste behin ere, ez digu hutsik egin Juan Rekartek. Bukatzen ari den urtean estilo askotako musika argitaratu du gure ausartak eta badira plazaratu dituen nobedadeen artean elizako musika dutenak, lagunekin kantuan aritzeko diskoak, Bach-i eskainitakoak, gitarrarentzat egindakoak ... aurki daitezke, denak Euskal Herriko musikarien lanak edo bertako interpreteek jotakoak, ausArt etxearen tradizio eredugarrian. Guztien artean batekin gera-

tu gara, Donostiako San Bizente elizaren 500. urteurrena gogoratzeko abuztuaren 31n egin zen zuzeneko kontzertua jasotzen duena.

Donostiako Alde Zaharreko Abuztuaren 31ko kaleko bi muturrak hartzen dituzten bi elizek Cavaillé-Coll organo bana dute, tresna zoragarriak biak, eta Santa Marian eta San Bizenten aritutako organo-joleen lanekin (Aita Donostia, Pildain, Garbizu...) osatu zen kontzertuko egitaraua. Koro Saenz Agirre organo-jolea dotore dabil organo protagonista duen diskoan, baina ez bera

bakarrik, J. I. Ansorenaren ere han da, eta hori balio erantsi aparta da. Juan Rekarteren grabazioan txistuarentzak moldatutako bost pieza jaso dira, eta Ansorenak berak bakarrik, eta ez beste inork, lortzen duen maisutasuna daramate txistuaren notak: goxo eta gozo, inoiz ezagutu ez dizkiogun tonuekin eta soinuekin harrapatzen gaitu. Olaizolaren *Agur Maria* da esaten dugunaren adibide: emozio hutsa sentitzen dena doinuaren entzuterakoan.

ANA G. DE TXABARRI

## IKASLEAK IDAZLE



JOSU MAKAZAGA |

DBH 4. MAILA

## Karela

Karela kiroldegian, prezio igoera nabarmena izan da azken urteetan, nahiz eta zerbitzuak ez diren aldatu. 16 urtetik beherakoek ez dugu baimenik saunan, jakuzian, hidromasajean eta gimnasioan sartzeko. Hau da, igerilekuan eta kantxan bakarrik ibili gaitzke. Bi gune horiek aprobetxatu ahal izategatik, 3,52 euro ordaindu behar izaten dute bazkide ez direnak. Horregatik egin nintzen bazkide.

Bestalde, kantxako argia ordaindu egin behar izaten da. Neguan, batez ere, eguraldi txarragatik kiroldegira joaten garenean aterpe bila, oso goiz iluntzen du, eta ez da ezertxo ere ikusten. Jolastu ezin denez, argia ordaintzea beste irtenbiderik ez dago; eta, argia ordubetez pizturik izateko, 10 euro ordaindu behar da, bazkide izan edo ez. Honen bidez, Karela kiroldegian zer hobetu daitekeen adierazi nahi dut.

**LURDES**  
ARRAZOEGIA

Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

Allianz

Marigre Zaldúa  
aseguru agentea

Bol. Ondo. 10 bete-ord. telefonoa: 943 13 47 60 faxa: 943 83 57 52 e-maila: zaldua.delacruz.pa@allianz.es

ardoak, urdaikiak, gaztak, kontserbak, janari prestatuak

etxeraino eramaten ditugu

943 83 09 84 aita lertxundi, 36 ORIO

## HANDIK ETA HEMENDIK

“

“Ez zait burutik pasatzen, adibidez, Europako telebista publiko homologatu batean edonoiz mecauendios-ka jo eta ke dabilen eta oinarrizko gizabidea zer den ez dakien astakilo bati ( Orion jaio arren erdara euskara baino hobeto darabilena, derradan bide batez) programa oso bat eskainiko litzaioke, Eskoziako aintzira famatu baten gainean arraunetan nola dabilen erakusteko.”

## XABIER KINTANA

Euskaltzaina  
Berria  
2007/12/05

## OSPAKIZUNA



## Martin Prignot Iturain

Abenduaren 5ean jaio zen Martin Prignot Iturain. Bazkari usain goxoa aditu zuen nonbait mutikoak, 12:45ean etorri baitzen mundura. 2,820 kg eta 46 cm-rekin jaio zen. 2007 urtean Orion jaio tako 67. haurra da Martin, eta Ana eta Jean Paul gurasoak semearen erregistroa egitera joan zirenean, egun berean izena ematen zuen 6. umea zela jakin zuten. Ama Anakesan digu, Martini aitaren antza hartzen diotela ikusi dutenek. Fotoan osaba Juanantonioren altzoan goxo-goxo lo.

## ZORIONAK!



## Herriko judokei

Aspaldian ari dira fin lanean herriko judokak, Usurbilgo taldean, eta emaitza oso onak lortu izan dituzte lehen ere.

Oraingoan, ordea, bereziki zoriondu nahi ditugu, meritu handiko emaitzak lortu baitituzte aurtengo Euskadiko Txapelketan (Oiana, Ibai eta Xabierrek) eta *Judo for Peace* txapelketan (Oianak).

Iruditzen zaigu, jeneralean, gure judokek oihartzun gutxi izaten dutela hedabideetan, askotan kirol *handi*agoekin betetzen baititugu gure orriak. Jakitun gara horretaz eta, horrexegatik, gure zorionik beroena bidali nahi diegu gaur gure txoko honetatik.

**TANATORIO ZARAUZ**  
EUROFUNERARIAS TALDEA  
Hileta eta zerbitzu orokorrak

- \* Donostia eta probintziako ospitaleetan
- \* Aldorako zerbitzuak
- \* Belatorio gelak
- \* Karroiak, eskelak, tramitazioak...

Azaba kalea, 35 Zarautz  
Tel: 943 88 49 37 / Fax: 943 88 48 41  
e-mail: harraspil@harraspil.net

**OLIDEN**  
Lurrategia  
ORIO  
Eusko Gudari, 2  
Tfnos: 943 83 10 86

aroztegia  
**MIRANDA**  
Jose M. Lasaola  
farina, ato, leño, askakora...  
bestur diren azotz larrik  
eguzi ditxkizaga  
Urdazeta bidex. 1 +655 42 52 70 > ZARAUZ

ile arazidegia  
**MARIJO**  
Neska eta mutilentzat  
Eusko Gudari, 8 - bajo  
Tel: 943 13 47 29  
ORIO

800 zenbakituen bidez  
**ARGIDENTAL HORTZ KLINIKA**  
Jl. Soulier doctorea  
Oklantologia  
Periodontia  
Endokontzia  
Implantologia  
Prebentzio  
Errehabilitazio  
Hortz osatza  
Protesiak  
Maria Etxetuiki 1, Zarautz  
943 15 92 78  
clinicadentalsouler@oninegoia.com

**LUXARBE**  
Igeltseritza  
Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.   
Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe   
Lan txukuna eta merkea   
Tfnos: 943 83 59 00

## OROIMENAREN KUTXA



Benitok kantu bat egin die *aguiluchoei*, mirotzei, eta oriotarroi aurkeztuko digu kiroldegian, abenduaren 28an. IÑAKI ITURAIN

## Arraunlariak kantari: mirotzak

**M**adrilgo kazetari bat Donostiako estropada ikustera etorri zen, oriotarrak ikusi zituen poparean, olatuaren gainean, eta hala esan omen zuen: *esos no son remeros, son aguiluchos, no reman, vuelan sobre las olas*. Aipamen hori 1940ko hamarkadako da. Aurrekoan, 1930ekoan, Oriora kanpotik etorritako musikari batek alirona asmatu zuen arraunlarien garaipenak kantatzeko: *Aliron... no hay ningún oriotarra que no sepa esta canción...* Geroztik, bide luzea egin dute bai alironak bai *aguiluchos* horrek. Ez dago oriotarrikantu hori ez dakienik, eta erdarazko prentsan Orioko arraunlariak beti izan dira *aguiluchos*.

Orain, Benitok kantu bat egin die *aguiluchoei*, mirotzei: *mirotzak*, eta oriotarroi aurkeztuko digu herriko kiroldegian, abenduaren 28an, inuxente egunean. Mirotzak kantua gaur egungo mundu globalizatuaren adibidea da: *ez zara inoiz bakarrik joango* esaten dio Benitok lehia ontzi miroztuari; horixe bera kantatzen diete Liverpool futbol talde ingeleseko jarraitzaileek beren jokalariei: *you'll never walk alone*.

Emanaldian oraingo mirotzek, gaur egungo arraunlariak, Benitorekin batera kantatuko dute mirotzak kantua. Ez dago jakiterik, baina baliteke egun horretan urtez urte bide luzea egin lezakeen kantu baten abiapuntua izatea.

Benitok gure kultura propioari egin nahi dion ekarpenaren aurkezpenean bat egingo dute artistak, arraunlariak eta herriak, ospakizun ludiko ederra izan daitekeen ekitaldian. Baina oroitzapenak ere bere tokia hartuko du kantaldian: iraganera begiratuta, aurtengo maiatzean utzi gintuen neska oriotar bat gogorra ekartzeko ospakizuna ere izango da, auto istripu tamalgarrarian joan zitzaigun Oihana Alkorta kantari bikaina oroitzeko unea, eta haren kantu hunkigarria berriz abesteko aukera emango diguna: *itsasoko olatuen gainean nabigatzen dihardut*. Oihanak ere bere herriko mirotzekin bat egin nahiko balu bezala.

IÑAKI ITURAIN

## JAIOTAKOAK

- Paula Errasti Bravo, Orion, abenduaren 9an.
- Oier Azurmendi San Sebastian, Orion, abenduaren 9an.
- Itxaso Lopetegi Palacios, Orion, abenduaren 8an.
- Martin Prignot Iturain, Orion, abenduaren 5ean.
- Klara Puertas Rementeria, Orion, abenduaren 4an.
- Ane Puertas Rementeria, Orion, abenduaren 4an.
- Aitor Aranguren Makazaga, Orion, abenduaren 2an.
- Lizar Mujika Izeta, Orion, abenduaren 1ean.
- Iraide Garmendia Eizagirre, Orion, azaroaren 30ean.
- Iker Irigarai Murua, Orion, azaroaren 28an.
- Igor Miera Recio, Orion, azaroaren 23an.

## EZKONDUTAKOAK

- Iñaki Aramendi Eizagirre eta M. Begoña Urdangarin Uranga, Orion, abenduaren 1ean.
- Ainhoa Manterola Azpeitia eta Bautista Riestra Roseñada, Orion, abenduaren 1ean.

## HILDAKOAK

- Inaxio Aitor Zubiria Guzman, Orion, azaroaren 25ean. 50 urte.

Sukalde eta bainuen erreformak

**XANTI MUJIKA**

**Igeltseritza**

699 46 76 21

943 13 10 37

Orioko Ogia

**ORIOGI**

OPIL OKINDEGIA

frontal ondoan

Tfnoa: 943 83 01 89



TERE JESUS CARRERA | LOTERIA SALTZAILEA

# “Sari nagusia non tokatuko den erabakita dago jadanik”

**Gabonetan, poltsikoa huts samarra duela eta, zorteari begira egoten den asko izaten da bazterretan. Tere Jesus Carrera izaten da gurean bentura banatzailea.**

## Urte batzuk izango dira loteria saltzen hasi zinenetik?

1966. urtean ireki zuen izebak lehenengoz denda, eta futboleko kiniela jarri zuen herritarren eskura, gerora etorri baitzen primitiba. Ordura bitartean, Salsamendi hotelan izaten zela uste dut, baina denbora gutxi iraun omen zuen. Izan ere, garai hartan zorte kontuak estankoen kompetentzia izaten ziren.

Izeba jubilatzean, nire ize-nean jarri genuen. Hasiera batean, egunkaria saltzen genuen loteriarekin batera. Haurra izan nuenean, ordea, egoera berriari aurre egiteko hari-denda egokiagoa zela iruditu ziztaigun. Kostata, baina azkenean han ere loteria saltzen utzi ziguten.

Bigarren umea izan ondoren, 1984an, futboleko kiniela eta primitibarekin bakarrik geratu ginen. Handik gutxira, hartatik bizi gineno Espainiako loteria nazionala saltzeko aukera eman ziguten, Espainian ez baitzegoen orduan txoko guztietara iristen zen denda-sarerik.

1994. urtearen amaieran eman ziguten azkenean horretarako baimena. Hala ere, 1996a arte ez genuen dezimorik izan, zenbakiak otsailerako eskatu behar izaten baitira Madrilerla.

## Egun hauetan lana ugari izango duzue?

Gabonetako loteriko dezimoak udara partean jartzen ditugu lehiatilan eta salmentan pixkanaka-pixkanaka egi-



Gabonetako dezimoz inguratuta dabil egunotan Tere Jesus Carrera.

KARKARA

**Orion bakarrik, 180.000 euro gastatzen dira abenduaren 22ko zozketako dezimoetan. Makina bat badira!**

ten da. Guretzat lanik gogorrena, abenduaren 22an hasten da, zenbakiak zozketatzen direnean. Sarituak tokatutakoa jasotzera etortzen dira, agudo, eta Niñoko loteria hartzera besteak; aurrera eta atzera, hartu eta eman izaten da.

**Gabonetan beti edukitzen dugu botila txapain prest baina... orain arte ez dugu irekitzerik izan**

## Zein diragehien saltzen diren zenbakiak?

Madrilgo ordenagailu zentralak erabakitzen ditu zein zenbaki dagozkigun. Hala ere, azken bi urteotan, eta baita astero ere, zenbaki abonatuak izaten dugu: 70.237.

Jendeak 5ean amaitutako

zenbakiak asko eskatzen ditu. Zenbaki arraroek ere arrakasta izaten dute. 666an bukatutako dezimoak ere azkar kentzen dizkigute eskuetatik. Jende superstizioso xamarra badago oraindik ere. Hala ere, kontuan hartu behar da, jendeak internet bidez ere bilatzen duela nahi duen zenbakia. Sari nagusia non tokatuko den erabakita dago, baina... jendea hara eta hona erotuta ibiltzen da tokatuko denaren bila.

## Zenbat dezimo saltzen dira gutxi gorabehera?

Egun, Orion bakarrik, 180.000 euro gastatzen dira abenduaren 22ko zozketako dezimoetan. Makina bat bada!

Edadeko jendeak erosten du gehienbat, berentzat sakratua izaten da-eta. Hala ere, ez dut uste dezimorik gabeko familiarik dagoenik gaur. Zerorrek erosten ez baduzu ere, opari ematen dizute. Hala bada, konpromisuagatik besterik ez bada ere, bestearentzat erosten da.

## Inoiz eman al duzu sari potolorik?

Gabonetako loterian ez, baina Bonolotoan 2 behintzat eman ditugu, duela 4 bat urte azkena. Ez dakigu zein izan zen saritua, hemen saldutako boletoa zela eta kobratu zela bai, ordea.

Gabonen bueltan beti edukitzen dugu, badaezbada ere, txanpaina prest, baina... orain arte ez dugu irekitzerik izan. Frigorifikoan ez balego ere, laster lortuko genuke edaria, tokatuz gero. Nahi nuke.

Sari nagusia izan gabe ere, besteren bat tokatuko balitz, primeran. Premio txikia izanda ere, segituan jarriko ginateke dantzan. Ilusioa azkar pizten zaigu.



## Lusarbeko eskola-etxeko haurrak

**B**errogei urte inguru ditu ale honetarako Rosa Lertxundik bidali digun argazkiak. Benta gainean atera zuen horretarako propio etorritako argazkilari batek. Bertan, Lusarbeko eskola-etxeko ikasleak ageri zaizkigu, aingeru txikiak bailiran. Urte haietan herrian ikastetxea bazen arren, ez zen egungo garraibiderik eta nekez etorri ahal izango ziren,

egunero-egunero, inguruko baserrietako haurrak. Hortaz, auzoetan eskolak beharrezkoak ziren haurrak eskolaratuko baziren. Hauek dituzue irudiko protagonistak, goitik hasita, eta ezkerretik eskuinera: Joakina Gorostidikoa, Joxepa Bentakoa eta Anttoni Lusarbekoa, maistra bera; erdian, ezkerretik eskuinera: Arantxa Saizar, Joxe Kruz Balerdi, Milagros Makazaga, Pedro Joxe San Sebastian,

Pilar Lertxundi, Joxe Ramon Arruti eta Rosa Lertxundi; beheko ilaran, ezkerretik hasita: Joxe Ramon Saizar, M. Jose San Sebastian, M. Jesus Etxeberria, Manolo Etxeberria, Xantos Makazaga, Ana Isabel Arruti, Belen San Sebastian, (†) Emilio San Sebastian eta Asentxio Saizar.

ARGAZKIA ETA INFORMAZIOA:  
ROSA LERTXUNDI

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

# KARKARA

**Peikeria eta estetika mistoa**

- Tintak egonak eta koloreak naturalak  
 - Bel-hecarako gisa irautokorra  
 - Azkara/ esfoliantza  
 - Pedicura  
 - Depilazioa

**Sex Rikolar, 2 Telf: 943 65 51 70**

**Automóviles ZARAUTZ**

CITROEN ZERBITZU OFIZIALA

100000 kilometro eta 10 urteko garantzia

**ZARAUTZ. TEL 943 13 13 50**

**Zaragueta Eskola Orrio**

telefonoa: 943 69 40 52  
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net

**TRAGOXKA PUB**

pubtragoxka@hotmail.com  
Aritzaga, 11 tel. 943 13 22 56

**IBILALDI GIDATUAK**

■ Abenduaren 22an.  
Elkargunea: Erroizpideko aparkalekua, Aiako kaskotik kilometro batera, 09:30ean.  
Ibilbidea: Erroizpide-Sagastizabal-Pagosoro-Behorbarruti-Elutsaundi-Lizarra-Nebera-Amezkatari-Sagastizabal-Erroizpe. Itzulera, 13:30ean.

**FUTBOLA**

■ Urtarrilaren 5ean, regionalean: Orio-Bergara. Jubenilean, Kopa eta jaitsiera: Burumendi-Orio. Infantilean: Astigarraga-Orio.  
■ Urtarrilaren 12a, regionalean: Orio-Mutriku. Jubenilean, Kopa eta jaitsiera: Orio-Hernani. Nesken Kopa: Orio-Luberri. Kadete neska, txapeldunen fasean: Hernani-Orio.

**TRASTE ZAHARRAK**

■ Orion, urtarrilaren 17an jasoko dituzte altzari zaharrak. Bezperan utzi behar dira eta udaletxean abisua eman. Trasteak jasotzera etxeraino joatea nahi baduzu, deitu 902 54 06 54 zenbakira.

**PLAIEROAK**

■ Abenduaren 29an, Kupela-Xixario. Zarauzko hondartzan, 13:30ean.  
■ Urtarrilaren 13an, Aranola leihoak-Xixario. Zarauzko hondartzan, 12:30ean.

**Elkartasun tonbola**

Ikastolako DBH4ko ikasleek elkartasun tonbola antolatu dute abenduaren 24rako. Iaz bezala, aurten ere bertan zozketatuko diren produktuen irabazien erdia Ruandako hurrei laguntzeko erabiliko da; gainontzekoak ikas bidaia ordaintzeko balioko die. Bide batez, Gabon jaietako giroa alaitu nahi dute antolatzaileek.

**ARETO FUTBOLA**

■ Abenduaren 22an, Nazionalean: Orioko Tabernak-Meatzari. Karelana. 2. kategorian, jaitsiera fasean: Bilkoin Legorreta-Orioko Tabernak B.  
■ Urtarrilaren 12an, Nazionalean: Ancla-Dosainpor-Orioko Tabernak. 2. kategorian, jaitsiera fasean: Orioko Tabernak B-Tecnum.

**KONTZENTRAZIOA**

■ Abenduaren 28an euskal preso politikoak Euskal Herriratzearen aldeko kontzentrazio isila. 20:00etan plazan.

**JOLASAK**

■ Abenduaren 22an, ikastola aurrean edo pergolan, kotxe pedaleak, trizikloak eta patineteak. 17:00etatik 19:00etara.

■ Abenduaren 26an, plazan, globoflexia, globo mezulariak eta txokolatada. 17:00etatik 19:00etara.  
■ Urtarrilaren 2an eta 3an, Karelana, Gabonetako haur parkea. 11:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 20:00etara.

**BIDEO FORUMA**

■ Urtarrilaren 4an, kultur etxeko areto nagusian: Jo Sol zuzendariaren *El taxista ful* filma. 22:00etan.

**HONDAKINAK**

■ Urtarrilaren 3an jasoko dituzte Orion olio zaharra eta bestelako hondakin arriskutsuak. Aian, berriz, Lardizabaleko aparkalekuan dauden edukiontzi berezietan utzi behar da olio zaharra.

**IKUSKIZUNAK**

■ Abenduaren 23an, elizan, Salatxo abesbatzaren kontzertua. Meza nagusiaren ondoren.  
■ Abenduaren 28an, Karelana, Benito Lertxundiren kantaldia. 22:00etan.  
■ Abenduaren 29an, Karela kiroldegian, Herribil 3 dantza emanaldia. 22:00etan.

**GABON ESKEA**

■ Abenduaren 24an, herriko eragileek antolatuta, Gabon eskea 16:00etan hasita. Herritarrak gonbidatuta daude parte hartzera.

**ITSASOA**

ILEA	Itsasgora	Itsabehera	Ilargia
21	01:46 eta 14:19	07:54 eta 20:16	☀
22	02:40 eta 15:13	08:49 eta 21:03	☀
23	03:30 eta 16:01	09:39 eta 21:48	☀
24	04:16 eta 16:45	10:26 eta 22:31	☀
25	05:01 eta 17:26	11:12 eta 23:15	☀
26	05:44 eta 18:06	11:57 eta 23:59	☀
27	06:28 eta 18:45	12:42 eta _____	☀
28	07:12 eta 19:27	00:45 eta 13:26	☀
29	07:57 eta 20:12	01:34 eta 14:12	☀
30	08:44 eta 21:05	02:24 eta 15:00	☀
31	09:34 eta 22:04	03:16 eta 15:53	☀
01	10:40 eta 23:23	04:17 eta 17:00	☀
02	11:50 eta _____	05:25 eta 18:07	☀
03	00:29 eta 13:00	06:34 eta 19:10	☀
04	01:29 eta 13:59	07:37 eta 20:04	☀

**ZAINZAKO BOTIKAK****ABENDUA**

■ 21an, Azaldegia.  
■ 22 eta 23an, Barrenetxea.  
■ 24an, Lasa.  
■ 25ean, Zulaika.  
■ 26an, G. Artiñano.  
■ 27an, Azaldegia.  
■ 28an, Zulaika.  
■ 29 eta 30ean, Iriarte.  
■ 31n eta 1ean, G. Artiñano.  
■ 2an, Azaldegia.  
■ 3an, Zulaika.  
■ 4ean, Iriarte.  
■ 5etik 7ra, G. Artiñano.  
■ 8an, Azaldegia.  
■ 9an, Zulaika.

**Azaldegia:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz

**Barrenetxea:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz

**Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz

**Olaizola:** S. Frantzisko kalea, 16. 943 13 38 14 Zarautz

**Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio

**Uranga:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz

**Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea 943 13 29 83 Zarautz


**Zulaika:** Bizkaia kalea, 41 943 13 39 94 Zarautz

# BENITO LERTXUNDI

biografia

OSPAKIZUNEZKO EDIZIOA

BENITO LERTXUNDIREN 40 URTEKO IBILBIDE ARTISTIKOA



ÁLVARO FEITO, *Benito Lertxundi "Orioko Bortxo": Aitorpen eta testigantzak*

Itatara, 4/7 amaiedeko (21 x 28,5 cm) edizio berezia da hau. Benito Lertxundi kantari euskaldunaren 40 urteko ibilbide artistikoa ospatzeko.

Liburuari buruz, egileak Benito Lertxundiren bidaiaren analisi zehatza egiten du. 60ko hamarkadaren erdialdean hasi zeneko kontuekin abiatu.

17.000 Amaieraren talde historikoa izan zuten partaidetza erekin segi eta gaur arteko hiru zabal eta emankortasaren analisia erekin amaitu.

Hurrenez gain, kantariaren garai desberdinetako argazki bilduma eder eta harrigarri bat gehitu da, zuri-beltzezko nahiz koloretako argazki mordoxka batekin. Argazki horietako asko inoiz argitaratu gabeak dira. Ospakizunezko edizio hau osatzeko onartararen 60 kantu ezagunenaren partiturak ere gehitu dira.

TODO LERTXUNDI EN UN GRAN LIBRO

Diario Vasco, 27-11-2006



Benito Lertxundi, *Zergatik utzi kantatzeari? Kantutegia*

Lehen aldia da kantutegi baten Benito Lertxundi kantari euskaldunaren 50 kantu ezagunenak bilduz direla. 'Zergatik utzi kantatzeari?' da lan honen izenburua (21 x 28,5 cm - 160 or). Kanlu bakoitzak melodia, gitararako akordeak eta euskaraz zein gaztelaniazko testuak jasotzen ditu.

Kantutegile moduan bizi izan dituen garai guztietako kantuak, "Lortxoak" egin zuen lehen kantua, amodio eta protesta kantuak, tradizionalak, epikoak, Zuberoako folkloretik datoznak, euskal poeten testuak musikatzeko solunikoak, Fernando Pessoa portugaldararenak edo Khalil Gibran libanotzarenak.

Obra historikoa eta era berean bizi-bizia, hilezkorra.

## ORION SALGAI

**ABENDUAREN 28an, KARELA KIROLDEGIAN,  
11:00etatik 14:00etara, 17:00etatik 20:00etara;  
eta Benitoren kontzertuan, 21:00etatik aurrera**

**Salmenten %10**

**Orioko Herri Ikastola laguntzeko erabiliko da**